


## ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 14.853 eskaintza erregistratu dira 2024an, 2023an baino 27 gutxiago ( % 0,17ko beherakada).

## LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administrazio Unitateko lurralde historikolari dagokionez, 2.396 eskaintza erregistratu dira Araban, 5.834 Gipuzkoan eta 6.623 Bizkaian. Eskaintzen % 44,59 Bizkaiko UAG-etan erregistratu dira, % 39,28 Gipuzkoan eta % 16,13 Araban.

### Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Hiru lurraldeetatik bilakera positiboa izan duen bakarra Bizkaia izan da, 234 eskaintza gehiago jaso baitira (% 3,66ko igoera). Araban murriztu dira gehien eskaintzak balio erlatiboetan, % 3,89ko beherakada eta 97 eskaintza gutxiago; azkenik, Gipuzkoan % 2,70koa izan da jaitsiera ( 162 eskaintza gutxiago).


## ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Bost okupazio-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako eskaintza gehienak. Zientzietako teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien; eskaintza guztien % 20,89 (3.103 eskaintza). Laguntzako teknikarien, zerbitzuetako, kualifikatu gabekoen eta industriako eskaintzek ere pisu nabarmena dute erregistratutako eskaintzei dagokionez, erregistratutako eskaintzen bolumenaren 18,29%, 17,57%, 13,71% eta 12,82% eskaintzakoak baita, hurrenez hurren. Eskaintza guztien erregistratu dituen profila zuzendariena da, 124 eskaintzarekin, eta, ondoren, lehen sektoreko langileen profila, 134 eskaintzarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, laguntza-teknikariaren profilaren eskaintzak igo dira gehien balio absolutuetan, 143 eskaintza gehiagorekin ( % 5,56ko igoera); balio erlatiboetan, berriz, zuzendarien eskaintzak hazi dira gehien, % 11,71 (13 eskaintza gehiago). Balio absolutuetan gehien jaitsi diren eskaintzak, industria-profilekoak dira, 271 eskaintza gutxiagorekin ( % 12,46 gutxiago); balio erlatiboetan, beherakada handiena lehen sektorekoen eskaintzetan dago, % 14,1eko jaitsierarekin (22 eskaintza gutxiago).

## K O N T R A T U M O T A


Erregistratutako eskaintzen % 40,78 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 58,65 aldi-baterakoak, eta gainerako % 0,56 merkataritzakoak. Kopuru absolutuetan, eskaintza mugagabeak 6.057 izan dira, iaz baino 376 eskaintza gehiago; % 6,62ko hazkundera. Aldi baterako eskaintzak 8.711 izan dira, iaz baino 395 gutxiago; kopuru erlatiboetan % 4,34ko beherakada. Azkenik, merkataritza-eskaintzak 83 izan dira 2024an, iaz baino 8 gutxiago.



Kontratuen kalitatea ikustea litzateke interesgarriena. Ildo horretan, kontratu mugagabeen portzentaia igoera nabarmendu behar da; 2022an % 29,4koa izan zen, 2023an % 38,2ra igaro zen eta 2024an % 40,8an dago. 2021aren amaieran onartutako lan-erreformak mota horretako eskaintzen gorakada nabarmena ekarri du.

## E S K A T U T A K O E S P E R I E N T Z I A - D E N B O R A

2024an erregistratutako eskaintzen % 77,6ek 0-6 hilabeteko esperientzia eskatzen dute, 11.526 eskaintza guztira. Eskaintzen % 11,82k (1.756) esperientzia handiagoa behar dute, 6 eta 12 hilabete artekoa. Erregistratutako eskaintzen % 8,23k (1.222 guztira) urtebete eta 3 urteko esperientzia behar dute. Bolumen txikiagoak dituzte esperientzia-aldi handiagoa eskatzen duten eskaintzek;



hala nola 3 eta 5 urte bitartekoak eta 5 urtetik gorakoak, % 1,81eko eta % 0,54ko pisuarekin, hurrenez hurren.

Bilakaerari dagokionez, azken urtean 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen duen tartean soilik igo dira eskaintzak (139 gehiago, % 1,22ko igoera). Aitzitik, balio absolutuetan, eskaintzak 6 eta 12 hilabete arteko tartean jaitsi dira gehien: 77 hilabete gutxiago eta % 4,2ko jaitsiera; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena 5 urte baino gehiago behar dituzten eskaintzetan izan da, ia % 7ko jaitsierarekin (-6 eskaintza).


Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hilabeteko esperientzia eskatu dute, 2023an bezala.

# Lan-eskaintzen erregistroa 2024an

## LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, esan behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lan-jardunaldia eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 15,84k soilik zehazten dute lanaldia (14.853 eskaintzatatik, 2.352 bakarrik). 2.352 eskaintza horietatik, 1.982 lanaldi osoko lan-eskaintzak izan dira, eta gainerako 371ak lanaldi partzialekoak.

Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 93 gehiago izan dira 2023 urtearekin alderatuta, hau da, % 4,92ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzak 26 gutxiago izan dira, eta beherakada erlatiboa % 6,55ekoa izan da.



## ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan lan eskaintzen % 1,84 kudeatu dira ABLEn bitartez, 14.853 eskaintzatatik 274. Aurreko urtean 248 izan ziren.


## ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Hori da eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste datu bat. Eskaintzen % 80,96k ez du zehaztu eskatutako gutxienerako prestakuntza-maila. Erregistratutako 14.853 eskaintzetatik 2.828k bakarrik zehaztu dute lanpostuko zereginak bete ahal izateko gutxienerako maila akademikoa.

2.828 eskaintza horietatik 1.041 LHko ikasketak eskatu dituzte, eta beste 1.041k unibertsitate-ikasketak. Ikasketak horiek dira eskatuena. Ondoren, derrigorrezko gutxienerako ikasketak behar duten eskaintzak daude, 535 erregistratuta. Azkenik, batxilergoko gutxienerako ikasketak mailako eskaintzak izango genituzke, 211 eskaintzarekin.

Bilakaerari dagokionez, aipatu behar da 2024an eskatutako ikasketak-maila zehazten duten eskaintzen kopurua oso antzekoa dela (2.828 eskaintza 2024an eta 2.795 eskaintza 2023an), eta eskaintza horiek erregistratutako eskaintza guztien gainean duten pisua % 19,04 dela. Urte artekotuei dagokienez, gehitu egin dira unibertsitateko (+54, +% 5,47) eta batxilergoko (+36, % 20,57) eskaintzak. Aitzitik, behera egin dute LH (-45 eta -, %-4,14) eta derrigorrezko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak (-12 eta -%2,19).

## Eskatutako gutxienerako prestakuntza maila



## ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintza-bolumenagatik nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria eta merkataritza dira, % 13,27 eta % 12,4ko pisuarekin, hurrenez hurren (14.853 eskaintzatik, 1.971 eta 1.842 eskaintza, hurrenez hurren).

Iazko datuekin alderatuta, eskaintza gehien izan duten jarduerak osasungintzakoak izan dira, 94 eskaintza gehiagorekin ( % 6,83ko igoera) eta ondoren merkataritzakoak 36 eskaintza gehiagorekin ( % 3,89ko hazkundera). Aitzitik, eskaintzak gehien jaitsi diren jarduerak eraikuntzakoak (110 eskaintza gutxiago) eta manufaktura-industriakoak (81 gutxiago) dira.

### Eskaintzaren jarduera

